

MEMORIA
2016

garabide
bidetara

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroa III.....	4
Eskolak.....	5
Ikastaro amaierako proiektuak.....	6
Euskalgintzako erakundeetara bisitak.....	7
Zabalkundea.....	10
Oihartzuna hedabideetan.....	12
Gogoetak.....	14
Tokian tokiko proiektuak.....	15
Mexiko.....	15
Guatemala.....	17
Kolonbia.....	19
Kolonbia eta Ekuador.....	20
Laguntzaile sarea.....	21
Ondorioak.....	22
Balantze ekonomikoa.....	23
Erakunde laguntzaileak.....	24
Esker ona.....	25

SARRERA

Aditu urtea beti da berezia. Urtero gorpuzten dira proiektu interesgarriak bai Euskal Herrian eta baita elkarlana bideratu izan dugun Hegoaldeko herri desberdinetan ere, baina Adituak badu pisu berezi bat Garabiderentzat. Gutxi izango dira munduan hizkuntza biziberritze proiektuak, horrenbeste erakunde eta enpresa artikulatzen dituztenak (Hegoko erakundeak, euskalgintzako erakundeak, udaletxe eta enpresak...), eta horrek agerian uzten du Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroaren sentsibilizazio potentziala eta ahalmen biderkatzailea.

Edizio guztietan ukitzen gaitu herri hauen kontakizunak, eta ikasten dugu gutaz haietaz bezainbeste. Opari bat da Adituko parte-hartzaileekin batera euskararen biziberritze esperientziaren bost hamarkada zeharkatzea; aditu eta arituen ahotik ezagutza jasotzea eta euskalgintzako erakundeak bertatik bertara eta barrutik ezagutu ahal izatea. Zer esanik ez herri hauen lekukotasunak eta ikasgelaz haragoko bizipenak ezagutzeko aukera edukitzea; bai Garabidetarrok eta baita euskal jendarteak ere, ikastaroari paralelo antolaturiko hitzaldien bidez.

Edizioz edizio ikusten ditugu ereindako haziak loratzen eta hazi berriak landatzen dira. Ziur gaude, adibidez, 2017ko Bidaide asko Aditu honetako proiektuetatik aterako direla.

Baina ez da soilik Aditu urtea izan 2016 hau. Urteroko Bidaide programari jarraituz, Mexiko, Guatemala, Kolonbia eta Ekuadorren ere jarraipena eman diegu hizkuntza lankidetzaren proiektuei eta 2017an estreinatuko den dokumental berria ere grabatu ahal izan dugu.

Udal eta enpresa sarea ere elikatzen jarraitzen dugu eta aurten, Bermeo bezalako udal berriekin hitzarmena sinatzeaz gain, sinbolikoki oso garrantzitsu deritzogun xedarr bat ezarri dugu: Nafarroako udal batekin sinatu dugu hitzarmena lehen aldiz, Baztango udalarekin, hain justu. Kutxa Fundazioa ere batu zaigu —Fagor eta Irizar kooperatibekin batera— babes ekonomikoa eskaitzen diguten enpresa zerrendara eta sentsibilizazio ekintzak burutu ahal izan ditugu erakundeekin Adituko partaideen presentziaz baliatuz.

Urteetan elikatu dugun beste prozesu bat ere aurten gorpuztu da. 2013an Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin hasitako elkarrietzeta eta elkarlanek aurten eman dute hitzarmen erako fruitua. Horri esker, hizkuntza militanteei bideratutako Aditu Ikastaroaz gain, mugimenduetako eragile politikoei bideraturiko hilabeteko ikastaldi bat burutu ahal izango dugu 2017ko udazkenean.

Uzta oparoa utzi digu, beraz, 2016ko Aditu urte honek. Eta irrikaz gaude 2017ak emango duena jaso eta berriz ere zuekin konpartitzeko.

HIZKUNTZA BIZIBERRITZEKO ESTRATEGIAK

ADITU IKASTAROA III

2016ko irailaren 30etik abenduaren 11ra arte iragan da Garabide elkartearen aurtengo proiektu handiena: Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroa. Hirugarrena izan den edizio honetan, 9 hizkuntza komunitatetako (nahuatl, Yucatango maia, maia kaqchikel, nasa, kitxua, aimara, guarani, maputxe eta bariba) 18 hizkuntza aktibistek, hiru hilabete iragan dituzte Euskal Herrian Garabidek Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatearekin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantzazioarekin antolatzen duen ikastaro honetan.

Elkar ezagutza eta trukea izanez tarteko, euskararen biziberritzean azken 50 urteetan eman diren urratsak hizkuntza egoera guttitu batean daukaten komunitateei transmititzea da ikastaroaren helburu nagusietako bat.

Hamar aste hauetan, hizkuntzen biziberritzearen inguruko formakuntza teorikoa jasotzeaz gain, euskalgintzako hainbat erakundek ateak zabaldu dizkigute, ekimenak bertatik bertara ezagutzeko. Gisa horretan, egonaldiaren beste xede garrantzitsu bat gauzatu da; munduko bertze hizkuntza komunitate gutxitu batzuen egoera eta identitate, kultura eta hizkuntza biziberritze prozesuak ezagutaraztea, euskal jendartean eragiteko. Horren lekuko izan dira Aditu Ikastarora etorritako eragileek Euskal Herrian zehar eskainitako hitzaldiak.



Lehen gualdia, Lamiñon.

Eskolak



Orotara, 490 ordu klase, aditu eta arituen eskutik, elkarizketa zirkularak oinarri.

Eskoriatzan, HUHEZI fakultatean, eman dira Aditu Ikastaroko klaseak eta hizkuntza biziberritzeko estrategien inguruan ardatz ezberdinak landu dira. Hizkuntza ekologiak eta soziolinguistikaz oinarriak jaso ondoan, estrategia konkrituak ikusi dira: korpusaren osaketa, hezkuntza, hedabideak, ekoizpen kulturala eta hizkuntza plangintza, besteak beste.

Aditu Ikastaroko azken bi asteetan, parte-hartzaile bakoitzak, hizkuntza biziberritzeko estrategietan espezializazio bat aukeratu eta bere proiektua zehaztuz joateko aukera izan du. Espezialitateak, hiru arlotan banatu dira:

- Haurren hezkuntza murgiltze ereduan.
- Helduen alfabetatzea.
- Hizkuntza plangintza.

Ikastaro amaierako proiektuak

Aditu Ikastaroaren helburua beraien errealitatean eragiteko gai izango diren pertsona biderkatzaileak sortzea izaki, formazioa jasotzeaz gain, beraien komunitateetan aplikatzeko proiektu bat diseinatzaren dute parte hartzaile guztiek. 17 proiekturen emaitza eman du ikastaroak eta horiei guztiei jarraipena emango zaie 2017an; batzuei on-line eta bertze batzuei tokian tokiko jarraipena eginez.

Honakoak dira parte-hartzaileek diseinatutako proiektuak:

Benin iparraldean, murgiltze eredua bariberaz martxan jartzea	Pacôme Donvide
Mexikoko Puebla estatuan, Tosepan kooperatiban, nahuatlerazko murgiltze eredua ezartzea	Gabriel Vázquez
Maia yukatekoa sustatzeko herri mailako plangintza Peto-n (Yucatán, Mexiko)	Isaac Carrillo
Maia herriaren ahozko artxiboa eratzea (Yucatán, Mexiko)	José Ángel Koyoc
Ruk'úx eskola sarean (Guatemala) maia kaqchikelezko murgiltze eredua bermatzea	Alba Velázquez
Gurasoen kaqchikeltzeko proiektua Chimaltenangon (Guatemala)	Olga Sitan Micolax
Ekuadorreko Saraguro komunitatearendako hizkuntza planifikazioa	Inti Cartuche
Paribertsitate kitxua sortzea Quito-n	José Yáñez Sinchi
Kitxuazko helduen alfabetatzeko curriculum sortzea Imbabura probintzian (Ekuador)	Javier Chuquin
Kitxuaren inguruko aktibazio soziala sustatzea Imbabura probintzian (Ekuador)	María Yamberla
Kitxuaren ordenantza bat sortzea Cotacachi-n (Ekuador)	Apak Yarik Perugachi
Hezkuntza elebidunean bateratzea Cauca-n (Kolonbia)	Horacio Ulcue
Murgiltze ereduko zentro pilotuen curriculum sortzea Cauca-n (Kolonbia)	Candelaria Ramos
Helduen alfabetatzerako curriculum lantzea Cauca-n (Kolonbia)	Rolando Azcue
Guaraniaren biziberritze plana 30 urteko epealdian (Bolivia)	Elias Caurey
Bolivian aimara irakasteko metodologia lantzea	Flomena Huarchacho
Araucaniarako (Txile) planifikazio linguistikoa	Alberto Huenchumilla

Euskalgintzako erakundeetara bisitak

Euskalgintzako hainbat esperientzien bertatik bertara ezagutzeko parada izan dugu Aditu Ikastaro osoan zehar. Zubigintza lan horretan, harrera beroa egina izan zaiku toki guztietan. Hizkuntzen biziberritzeko estrategien partekatzeak hainbat gogoeta interesgarriren bideak marraztu ditu gainera.

Ikastaroak iraun duen 10 aste horietan, 50 bat bisita egin dira euskararen biziberritzea lantzen duten arlo ezberdinetan, Euskal Herriko lau haizetara.

Hona ikastaroan ikusi proiektu eta erakundeen zerrenda bat:

Adur euskara elkarte	Amikuzeko ikastola	Amikuzeko Zabalik euskara elkarte	Argia	Arrasateko ÆK
Baionako Etxepare lizeoa	Basabeazpi ikastola	Berria	Bilboko Kafe Antzokia eta Zenbat Gara elkarte	Biriatuko ikastola
Durangoko Azoka	EITB	Ekogunea	Emun taldea	Euskaltzaindia
Gipuzkoako Foru Aldundia	Goiena	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza	Kilometroak	Lurrama
Mintzola	Nafarroa Oinez	Tafallako ikastola	Txalaparta argitaletxea	UZEI



Hizkuntzen biziberritzean hedabideek duten garrantzia aztertzearekin batera,
Argia aldizkaria bisitatu genuen, bertzeak bertze.
Modu zirkularrean, beren proiektua azaldu zigun Argiako lantaldeak.



Zenbat Gara, Kafe Antzokia eta Aresti Euskaltegia ezagutu genituen Xabier Monasterioren eskutik.



Baionako Bernat Etxepare lizeoko ikasleekin ukan elkarizketa aberasgarria,
Inti Raimy batez bukatu zen.




Pirritx eta Porrotxen ikusgarritik landa, Eskoriatzan.

Zabalkundea

Enbido txikira!

Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak
ikastaro parte hartzaileen lekukotasunak



Zein da hizkuntza hauen egoera? Beraien ametsa?

Nola ikusten gaituzte? Zeintzuk dira gure argiak, eta itzalak?

Urepele

Azaroak 5, 18:00etan
(Bariba eta Aimara)

Eskoriatza

Azaroak 29, 19:00etan
(Maputxea eta Nasa)

Aramaio

Azaroak 15, 18:30ean
(Aimara, Kitxua, eta Kaqchikela)

Tolosa

Azaroak 30, 19:30ean
(Maia yukatekoa, Nasa, Bariba, Kitxua eta Nahuatl)

Fagor

Azaroak 16 18:00etan
(Nahuatl, Kaqchikel eta Nasa)

Baztan

Abenduak 8, 19:00etan
(Kitxua, Nahuatl, Kaqchikel eta Maia yukatekoa)

Orio

Azaroak 17, 19:00etan
(Nasa, Kitxua eta Guaranía)

Data zehazteko:

Oiartzun
Durango

garabide
ejehepiq
www.garabide.eus

Herriz-herri, hizkuntza biziberritzearen inguruan esperientzia ezberdinak partekatzeko aukera eman du ikastaroak. Goiko kartelak biltzen duen bezala, Garabidek laguntzaile dituen herri, enpresa, zein ikastola edo kultur elkarten bitartez obratu ahal izan ditu ekitaldiak.



Fagor Ederlan taldekoekin, nasa, kaqchikel, nahuatl eta euskal hizkuntza komunitateak munduan kokatuz.



Galdera anitz sortu zuen Oiartzungo saiok.

Aurkezpen kartelean zerrendatu herriez gain, hezkuntza arloan oihartzuna izan du ikastaroak. Hala nola, Durangon (Ibaizabal ikastolan eta udaletxean), Oiartzunen (Haurtzaro ikastolan, Elizalde herri eskolan eta udaletxean) eta Arizmendi ikastolan ere egon gara.


Zabalkunde ekintzekin amaitu eta ikastaroari bukæra biribila emateko, Adituan eta hizkuntza lankidetzako zubigintzan orokorrean Garabideren bueltan ibili diren eragile eta erakundeak batu nahi izan genituen opari kate sinboliko batean. **Hizkuntzak Opari** deitu genion ekitaldian, 120 lagun inguru batu ginen Aretxabaletako Arkupe aretoan azaroaren 23an. **Ez al da ematea jasotzea bezain atsegina?** premisa pean, hizkuntza komunitate bakoitzak opari sinboliko bat egin zion Adituan parte hartutako erakunde bati, eta alderantziz.



Garaiko herri, Hizkuntzak Opariak, Jon Sarasuaren laguntzarekin sortu kanta, hamaka hizkuntzetan emana.

Oihartzuna hedabideetan

Aipatzekoa da Aditu Ikastaroak hedabideetan piztu duen interesa. Berrian, Argian, ETBko Gaur Egunen, Garan, Euskal Irratietan, Xorroxin irratian, Goienan, Tolosaldeko atarian edo Diario Vascon eman dute Adituaren berri. Horretaz gain, jarraipen segitu bat eskaini dio Radio Euskadiko Roge Blascok bere asteroko emankizunean. Bertzalde, iaz bezala, Info7ko Gureaz Blai saioan, hilabeteroko pilulekin parte hartzen jarraitu dugu.



Hemen Ahotsak.eus-eko Idoia Etxebarria, Isaac Camillo elkarizketatzen, 101L proiektua kari.



MU telebistakoak, ikastaroeko partaide eta HUHEZlko ikasleen arteko elkaritzketa grabatzen.

Horrez gain, sare sozialetan edo ikastaroaren berri emateko espreski sorturiko blogean ere eguneroko segipena eskaini zaio Adituari.

Orotara, Garabideren webguneak **1.200 bisita** izan ditu Aditu Ikastaroaren garaian eta bisita gehienik izan diren egunetan **60 bisita** egin izan dira.

Gogoetak

Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroaren III. edizio honek helburu ezberdinak bete dituela erran dezakegu. Hizkuntza biziberritzearen problematikaren kontzientzia azkartu du herrietako eragileen artean. Horrez gain, aurreko Adituetak eta orokorki Garabideren lanaren fruituak ikusi ahal izan ditugu, kaqchikel komunitatearen hezkuntza sarean adibidez. Azpimarratzekoa da baita ere euskalgintzaren prestutasuna bere esperientzien partekatzeko eta hizkuntza lankidetzan jarduteko. Nahiz eta Aditu Ikastaroa abenduan bukatu, 2017an lanean jarraitzeko hainbat bide zabaldu dira. Horiek, Bidaideen bitartez jorratuko dira, bertzeak bertze.

TOKIAN TOKIKO PROIEKTUAK

BIDAIDE 2016

2016an, Mexiko, Guatemala, Kolonbia eta Ekuadorren garatu ditugu hizkuntza lankidetzako proiektuak. Kasu batzuetan zuzenean egin da Garabidetik eta, bertze batzuetan, euskalgintzako eragileen eta Hegoko erakundearen arteko zubigintza lanetan aritu gara gure erakundearen lankidetzako filosofiari jarraiki.

Mexiko

Nahuatl eta Yucatango maia komunitateak

2016ko udan, Cuetzalanen (Puebla) den **Tosepan** erakundearekin aurreko urteetan hasitako lanari eta Yucatango maiaren biziberritze prozesuei jarraipena eman zaie. Bi Bidaideen helburu nagusia izan da hizkuntza biziberritzeko estrategia orokorreari eta hurrengo pausuei jarraipena eta aholkularitza ematea.



Yuyum irratikoekin, bilkura ostean hartu argazkia.

Mexiko

Nahuatl hizkuntza komunitatea

Jon Sarasuak, Garabideren izenean, Tosepanera, ekainaren 27tik uztailaren 2ra egin bidaian, honako arloak landu ziren:

- Hezkuntza arloan, murgiltze ereduaren emaitzen azterketa eta aholkularitza.
- Korpusaren lanketaren jarraipena.

Yucatango maia

Yucatango maiaren biziberritzean lanean ari diren erakunde eta aktibistekin eraman lana honakoa izan da 2016ko uztailaren 3tik 9ra:

- Yucatango maia biziberritzeko ekintzak bertatik-bertara ezagutzea.
- Hizkuntza biziberritzean egiten den lanaren diagnostia kulturgintzatik eta horren lanketa bertako eragileekin.
- Yuyuun irrati maia, Tosepan irrati nahuatlaren eta Garabideren arteko elkarlana zehaztea.
- Hezkuntza elebidunak maiaren biziberritzean egiten duen ekarpenaren diagnostia. Hezkuntza elebiduneko irakasleekin tailerrak eman dira, bai eta hitzaldi bat ere Yucatango Unibertsitate Autonomoan, euskal esperientziaren eta maiaren egoeraren inguruan.

Aipatzekoa da nahuatl komunitateko kide batek eta Yucatango bi maiak hartu dutela parte Aditu Ikastaroaren hirugarren edizio honetan, eta horren baitan sortutako proiektuei jarraipena emango zaiela 2017an. Gabriel Vázquez Chávez, nahuatl hizkuntza komunitateko kideak, Tosepan taldeko eskolan murgiltze eredu barnatu nahi du. Isaac Carrillo, Yucatango maiak, herri mailako maia sustatzeko plangintza egiteko xedea du Peto-n. José Luis Koyoc, Yucatango maiak, maia herriaren ahozko artxiboa sortu nahiko luke.

Guatemala

Maia kaqchikel komunitatea



Ruk'ux eskolako irakasle taldea eta Iñaki Gonzalez hausnarketa saio batean.

Ruk'ux maia kaqchikel eskola sarearekin dugun harremanari eman zaio jarraipena Garabideko kolaboratzaile Joanes Igeregi eta Iñaki Gonzalezek 2016ko uztailaren 21etik abuztuaren 9ra Chimaltenango eskualdean eginiko egonaldiaren bitartez.

Bidaide honen helburua izan da formazio jarraitua ematea hezkuntza arloko hizkuntza eragileei; prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea idazketa eta irakurketa lantzeko, hain zuzen ere. Materialgintzarako gakoen inguruan aritu dira lanean, eta Ruk'ux Qatinamit-eko arduradunen arteko gogoeta estrategikoa ere gidatu dute.

Horrez gain, sortu berri den maia kaqchikel unibertsitateko eragileekin harremana sortu dute.

Guatemala

Maia kaqchikel hizkuntza komunitatetik ere bi kide izan dira Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroan. Beren egonaldiaren harira, Alba Velásquez-ek murgilketa eredua azkartzeko proiektua landu eta Olga Sita Miculax-ek, Ruk'ú'x eskola sareko gurasoak alfabetatzeko proiektua aurkeztu du. Horiei biei jarraipena emanen zaie 2017an zehar.

Aipatzekoa da baita ere Joanes Igeregi Garabideko kolaboratzailea bitartekaritza lanetan ari dela kaqchikel komunitatearen eta Garabideren artean Guatemalan egiten ari den egonaldi baten haritik.



Irñaki eta Joanes, eskolako zuzendariari adi.

Kolonbia

Nasa komunitatea

Aurten, Kolonbiako Caukako Çxhab Wala Kiwe – ACIN (Asociación de Cabildos Indígenas del Norte) eta Nasa Üus (Asociación Cabildos de Reasentamientos) elkarteen eta Garabide Elkartea eta UPV-EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren artean burutzen ari den elkarlanaren ildotik izan dugu esku-hartzea urte askotako harremana dugun Cauca eskualdean.

Bereziki garrantzitsuak izan dira Caukako Norte eskualdeko Toribio herriko Plan de Vida Proyecto Nasa-rekin (ACINeko eskualde-atala) lotutako eta sinatutako, hitzarmenak:

- 2016an sinatutako nasa eta euskal herrien arteko hizkuntza lankidetzak finkatzen duten Convenio entre Garabide y el Centro de Educacion, Capacitación e Investigación para el Desarrollo Integral de la Comunidad eta Convenio Específico de Colaboración Lingüístico Identitaria.
- 2017rako Toribioko Plan de Vida Proyecto Nasa baitako, CECIDIC erakundeak eta Hilo de Nasa Yuwe atalak Garabideri zuzendutako eskutitza, ondoko urteetan, hezkuntza eta material pedagogiko mailan trukeak izateko interesa adieraziz.

Hari horretarik, honako harremana izan da nasa herriarekin 2016an:

- 2016ko uztailaren 1etik 22a arte, hizkuntza planifikazioaz aholkularitza egin dute Andoni Barreña eta Mikel Mendizabalek Unesco katedraren izenean.
- 2016ko abuztuaren 1etik 10era, helduen alfabetatzeaz eta jatorrizko hizkuntzaren didaktikaz eta baitaratzeaz aritu dira Ane Ortega eta Arkaitz Zarraga Unesco katedraren bidez.
- 2016ko irailean, murgilketa ereduko irakasleen trebakuntzaz aritu dira Ibaizabal ikastolako Rosa Elizburu eta Rosi Oleaga.

Nasen kasuan ere, hiru ordezkari hartu dute parte aurtengo Adituan. Aurreko Bidaideetako lana segitzeaz gain, hauen proiektuei ere jarraipena emango zaie 2017an. Rolando Ascue-k, helduen alfabetatzea landu nahi du Cauca. Horacio Ulcue-k, eskola elebidunen bateratzea obratzeko xedea du, Candelaria Ramos-ek berriz, murgiltze eredua lantzen duen zentro pilotoko curriculum-a sortu nahiko luke.

Kolonbia eta Ekuador

Nasa eta kitxua komunitateak



Candelaria Ramos hizkuntza promotorea, eta Aditu 3ko parte-hartzailea, murgiltze eredua lantzen lehena izan den eskolaren aitzinean (Cauca, Kolonbia).



Toribion, Ibi hizkuntza promotore nasekin elkarizketan.

2016ko martxoaren 19tik apirilaren 11ra, Garabideko Ander Bolibar, Mondragon unibertsitateko HUHEZI fakultateko Miren Igone Cerio, Sara Mijangos eta Nagore Ulmos ikasleak, Ekuadorren eta Kolonbian barrena ibili dira bertako hizkuntza biziberritze prozesuak ezagutarazteko dokumental bat grabatzen.

2017an da estreinatzekoa egonaldi horren fruitua: **Amasa Txikitxuak**.



Ander Bolibar, Garabideko kidea, Hizkuntza eta IKTen inguruko hitzaldia ematen Imbaburan (Ekuador).



2016ko Nafarroa Oinezeko Txikiak Handi ekimenerako irudiak hartzen Quiton.

LAGUNTZAILE SAREA

Udalak, enpresak eta erakundeak

Azken lau urteetako lan instituzionalari esker, udal, enpresa eta erakunde desberdinen babesa lortu dugu Garabiden. Beharrezko sostengu ekonomikoaz gain, babes instituzionala eta herrien arteko esperientzia elkartrukerako giharra eskaintzen digu sare honek.

2016an, Baztan (Garabiderekin hitzarmena sinatu duen lehen udalerri nafarra) eta Bermeo batu dira gure udaletxe sarera. 2013an elkarlan eredu honi ekin genionetik, Aramaio, Baztan, Bermeo, Durango, Oiartzun, Orio, Otxandio, Tolosa, Usurbilekin mantentzen dugu hitzarmena eta udaletxe sare hau estrategiko bilakatu da Garabiderentzat bai finantzaziorako eta baita Euskal Herrira begirako sentsibilizazio ekintzetarako ere.

Eskoriatza eta Arrasateko udalek ere urtero egiten digute ekarpena eta Irizar, Fagor eta Kutxa Fundazioarekin ere elkarlana bideratzea lortu dugu. Azkenak, adibidez, aurtengo Aditu Ikastaroko bi ikasleren egonaldia finantzatu du.

Bestalde, 2016an, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin hitzarmena izenpetu dugu. Hitzarmen horrek, egonkortasun instituzional bat eskaintzeaz gain, ahalbidetuko du 2017ko udazkenean hizkuntza biziberritze mugimenduen gidaritza politikorako Aditu Ikastaldi bat antolatzea.



Joseba Otondo (Baztango alkatea) eta Txema Abarrategi (Garabideko koordinatzailea) hitzarmena izenpetzen.

ONDORIOAK

2016garrena, urte emankorra izan dugu. Udaberrian, aurreko urtean egin lanaren kimuak atera ziren, udal laguntzaileen sareko kide berriak, errate baterako. Udako Bidaideetan berriz, aitzineko urteetan ehundu harreman eta ezagutza trukeari segipena ziurtatu zaio, Kolonbian, Mexikon, Guatemalan eta Ekuadorren, gerora begira, hegoko eragileekin elkarlan sendoen jarraitzeko aukera emanez.

Aditu Ikastaroaren III. edizioa dela eta, udazken ederra izan dugu gainera. Bederatzi hizkuntza komunitateetatik etorri 17 lagunak, urria eta abendua arte gurekin egon ostean, Afrika eta Abya Yalara itzuli dira.

Hamar astez, Euskara Herriak hizkuntza biziberritzean duen esperientzia ezagutu ahal izan dute. Eta guk berriz, bariba, kitxua, nasa, maia kaqchikel, Yucatango maia, nahuatl, maputxe, guarani eta aimarena jaso dugu. Ikastaroak etorkizunerako lan xendrak marraztu dizkigu, Inti Cartuche kitxua lagunak dioten bezala, hizkuntzen biziberritze lan hauetan, **elkartasunezko bide berean baikara.**

Aditu Ikastaroan, euskalgintzako hainbat eragilek ateak zabaldu dizkigute, hizkuntzen arteko zubigintza lanetan lagunduz. Modu berean, Aditu Ikastaroan parte hartu duten ordezkariak, Euskal Herriko hainbat tokitan hitzaldiak eman dituzte, beren esperientziak bertatik bertara ezagutzeko parada eskainiz. Hitzaldi hauen obratzea Garabideren laguntzaile sareari esker egin da. Eskertzekoa da, leku guztietan agertu borondate eta jakin-mina. Azpimarratzekoa da gainera, karia horretara Euskal Herriko prentsak ikastaroari eta hizkuntza lankidetzari eskaini dion tratamendua.

Aditu Ikastaroan sortu 17 hizkuntza biziberritze proiektuak lekuko, ondoko hilabeteetan ikastaroak utzi haziak han eta hemen loratuz joanen direlakoan gaude. Hauek ondoko urteetako Bidaideak irekitzen dituzten moduan, 2017an, proiektu ezberdinen jarraipena egingo dugu, birtualki eta lekuan-lekura Garabidetik joanez, edo euskalgintzako eragile eta herrien arteko ezagutza trukea ziurtatuz.

Aurtengoak ere frogatu digu, elkarrengandik asko daukagula ikasteko, gure argi-ilunen eta ametsen kontakizunak dantzan ezarriz bidean. Eta eskua emanik gabiltza, oreka bildu nahian. Mila esker beraz zuri, sokadantza honen parte izateagatik.

BALANTZE EKONOMIKOA

Sarrerak

Erakunde publikoak.....	215.242,60 €
Erakunde pribatuak.....	29.522,27 €
GUZTIRA.....	244.764,87 €

Inbertsioak

Bidaide programa

Mexiko (Yucatango maiak eta nahuatlak).....	7.000,00 €
Kolonia (nasak).....	16.000,00 €
Ekuador (kitxuak).....	9.000,00 €
Guatemala (maia kaqchikelak).....	9.600,00 €
Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroa III.....	152.373,66 €
Administrazioa.....	9.235,00 €
Koordinazioa.....	23.086,00 €
Zabalkundea.....	19.347,39 €
GUZTIRA.....	245.642,05 €

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



ESKER ONA

Adur euskara elkarteak
Ahotsa.eus
Amikuzeko ikastola
Argia
Arizmendi ikastola
Arkupe aretoa
Arrasateko ÆK
Bagara
Basabeazpi ikastola
Bazara ekimena
Bernat Etxepare lizeoa
Berria
Biriaturko ikastola
EITB
Ekogunea
Emun
Euskaltzaindia
Galtzaundi elkarteak
Gipuzkoako Foru Aldundia

Goiena
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
HUHEZI fakultatea
Ibaizabal ikastola
Kilometroak
Kurtzebarri eskola
Loramendi elkarteak
Mintzola
Oiartzungo Elizalde herri eskola
Oiartzungo Haurtzaro ikastola
Seaska - Iparraldeko ikastolen elkarteak
Soziolinguistika Klusterra
Tafallako Garces de los Fayos ikastola
Topagunea
Txalaparta argitaletxea
Txikiak Handi ekimena
Urtxintxa
UZEI
Zabalik euskara elkarteak

GARABIDE KULTUR ELKARTEA

Jose Arana 13
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)
943 25 03 97
garabide@garabide.eus
www.garabide.eus
 [/garabide.eus](https://www.facebook.com/garabide.eus)
 [@garabide](https://twitter.com/garabide)